

Ostatuaren eta eskolaren aurreko terraza berritu dute

Abaltzisketako aurtengo inbertsiorik handiena egin dute bertan, lanetarako 78.000 euro bideratuz; estalpea eta eskolako haurrentzako gune berri bat egin dituzte //5



Urteko inbertsiorik handiena egin dute ostatuaren kanpoaldean. I.G.L.

Azokarekin hasiko dute Altzon, Olentzerotan Jakin-minez

Abenduaren 30a bitarteko ekitaldiak antolatu dituzte; hilaren 15ean proiektatuko dute herritarrek egindako 'Gure Handiaren Ibilerak' antzerki ibiltaria //6

Gaur hasiko da VII. Antton Pebet Esku Pilota Txapelketa

Villabonako Behar Zanak punta-puntako pilotariak elkartuko ditu nagusien mailan; finalarekin batera jaialdi berezia antolatu dute hilaren 29rako //7



Tolosako anbulatorioko lehen arretako langileek elkarretaratzea egin zuten pasa den astean. MIKEL IRAOLA

Tolosako anbulatorioko lehen arretako langileek pertsonal falta salatu dute

Legeak dio medikuek 1.500 paziente artatu behar dituztela, baina 1.700tik gora izaten dituzte; «egunean 27 pertsona jasotzeko muga dugu, baina batzuetan 40ra iristen da zifra hori», esan dute //3



Usabal Ind., 12- 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

Eibarren ospitale berria eraiki izana gaitzetsi du TOPAk

Urriaren 22an inauguratu zuten zentroa, eskualde hartako bigarren ospitalea; TOPA «oso haserre» azaldu da

Itzea Urkizu Arsuaga

Tolosalde Osasun Publikoaren Alde koordinakundea Eibarre-raino bertaratu da azken aldarriak plazaratzera. Joan den urriaren 22an ospitale berria inauguratu zuten bertan, eta 75.000 herritarri zerbitzu eman-godie eraikin berriak, Debagoiena eta Lea-Artibai eskualdeak hartuz. Hain justu hori gaitzetsi du TOPAk: Mendaron ospitale bat izanda bigarren bat eraikitzea, eta «beharren gainetik» ospitale bat eraikitzea.

Izan ere, 2019 hasieran zortzi urte beteko ditu TOPAren ibilbideak eta, hainbat eskari gehitu izan dituzten arren, Tolosalderako kudeaketa publikoa duen ospitale publikoa lortzea izan da, urteotan guztiotan, koordinakundearen nahia.

Bide horretan, Javi Arana TOPAko ordezkariak nabarmendu du beren aldarriak ez direla «kontu ideologiko bat», eta datu-

tan oinarritzen dutela beren diskurtsoa: «Beti esan izan dugu, enpresa pribatuak eskuratzen dituen etekinak direla, guk kalitatean galtzen ditugunak. Horregatik, ospitale publiko bat eskatzen dugu. Zergatik? Ekitateagatik. Guk ez dugu pribilegiarik nahi, gainerako eskualdeek dutena eskatzen dugu, ez besterik».

Koordinakundeko kideek «haserre» azaldu dute beren burua, eta Jon Darpon Osasun Sailburuaren esanak baliatu dituzte egonezina arrazoitzeko: «Bere lehen agintaldiaren hasieran zehaztu zuen, Eibarren aurretik hitzartutako ospitale berria egitea ez zela lehentasun bat izango. Tira, ez zen lehentasun bat, baina egin dute».

TOPAk azaldu duenez, Asuncionen aferaren bueltako informazioa bildu nahian dabilta, soka horren guztiaren arrazoiak plazaratzeko; bitartean, herritarren «onarpena eta pasibotasuna» aldatzea espero dute.



TOPA koordinakundeak 2011 hasieran ekin zion eskualderako ospitale publikoa eskatzeari. I. URKIZU ARSUAGA



«Arrazoi politikoengatik egin dute Eibarko ospitalea»

JAVI ARANA
TOPAko kidea

I. Urkizu Arsuaga Tolosa

Eibarren ospitale berria inauguratu dute, eta bertan izan zarete.

Bai. Eta zergatik eraiki dute? Pertsonak erdigunean daudelako, ez. Arrazoi politikoengatik egin dute, eta EAJk PSE-EEren baldintza bat onartu duelako, botoen truke. Eta horrek izugarri haserretu gaitu.

Ospitalearena aurretik zeto-

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburak.eus-en

rren proiektua dela diozu, beraz?

Antza, Patxi Lopez lehendakari atera zenean, ospitale hori egingo zutela agindu zien eskualde horretako herritarrei. Dena den, ez dute jendearentzako azpiegitura bat sortu, eta beste arrazoi batek mugitu ditu. Hori diot, besteak beste, ospitalearen tamaina ikaragarriagatik: ez da behararren arabera. Bost solairuko eta 20.000 metro karratu baino gehiagoko eraikin bat altxatu baitute.

Gehiegizkoa dela uste duzue?

2015ean, Mendaroko ospitaleko zuzendariak zenbait adierazpen egin zituen, zehaztuz, eskualde horrek zenbat ohe beharko lituzkeen epe-ertaineko egonaldietarako: 10-15 ohe. Bada, orain, 72 ohe jarri dituzte. Eta kontua ez da hor bukatzen. Eraikina hain handia denez, ez zekiten nola bete eta, azpiegitura hutsik gera ez zedin, ospitalera eraman dituzte Eibarko Torrekuako osasun zentroa, buruko gaixotasunen Eibarko zentroa eta Etengabeko Arretako Gunea. Era berean, Mendaroko espezialistak, X izpien gunea eta errehabilitazioa ere Eibarko ospitalera mugitu dituzte. Guztia, arrazoi ekonomiko eta inmobiliario batengatik. 31 milioi euro mugitu dituzte, eta lehendabiziko kolpea zorua erostea izan zen: enpresa pribatu batek 3,5 milioi euro baino gutxiagotatik erosi zuen eta, ondoren, erakunde publikoei saldu zien, 5,5 milioi euroan; bost urtean, beraz, 2 milioi-ko irabaziak eskuratu zituzten. Erabat eskandalagarria izan da.

Zortzi urte beteko dira zuen protestak hasi zenituztenetik. Zer behar duzue zuen eskaraintzat har ditzaten?

Hartzaile on bat. Eta, gaur-gaurkoz, horrelakorik ez dugu ikusi. Hemen, hasiera-hasieratik, oso gauza arraroak gertatu izan dira, eta guk beti esan izan dugu Tolosaldekoa esperientzia pilotu bat izan dela, pribatiazioaren alde. Gu gara ardi beltzak, eta bada zerbait.

Ezkutuko arrazoiak daudela iradoki nahi duzu?

Bai, gure ustez ezkutuko arrazoiak daude, arrazoi garrantzitsuak. Horretan ari gara, eta zerbait aurkitzen dugunean plazaratuko dugu.

Eibarko ospitalearen albistea kolpe bat gehiago izan da?

Gu haserre gaude, geundena baino haserreago. Desoreka beti izan da, eta orain handiagoa da. Berriki jakin dugu, Asuncion klinikako hainbat espezialista Eibarko ospitalera joaten ari direla lanera, eta normala da, hemengo egoera oso-oso zaila baita. Ikusi besterik ez da egin behar, duela hilabete batzuk traumatologoe-kin gertatu zena: berez 6 traumatologo dagozkio Tolosaldeari, eta 1,5ekin geratu ziren, inor aurkitzen ez zutelako. Hona iristen diren langileek eskaintza hobe bat aurkitzen dutenean, alde egin dute. Eta, argi dago: auzi honetan guztian, langileak eta erabiltzaileok gara kaltetuak. Beraz, ikusi egin behar, ea behingoz lotsak irabazten dien. Hitz egiten dutenean ahoa betetzen zaie, baina hori guztia Tolosaldeko biztanleez barre egitea da.



Medikuen agendak amaiezinak direla salatu dute

Tolosako anbulatorioko lehen arreta zerbitzuko langileek «pertsonal eta denbora falta» salatu eta «kalitatezko zerbitzua eskaintze aldera erabakiak hartzeko» eskatu dute

Mikel Iraola Tolosa

Lehen Arreta Arnasberritzen plataforma duela urtebete pasatxo sortu zuten, arreta zerbitzua kalitatean izandako beherakadak sortutako kezkak bultzatuta. Gehienbat medikuek osatua da, baina badira erizainak edota administrazio lanetan diharduten langileak ere.

Estamentu guztiei eragiten dien gaia dela esan du Ina Idarreta medikuak, plataforma osoaren izenean. Kalitatearen galera hori zerk sortu duen galdetuta, lehenengo eta behin pertsonal eta denbora falta aipatu ditu: «Ez dago ordezkapenik. Eta ez bakarrik oporrak hartzen ditugunean. Hutsune estrukturalak daude. Hemen leku aldaketa baten ondoren plaza hori bete gabe geratu da; bada beste kasu bat bajaran dagoen langile batena, eta bere ordez ez dago inor».

HUTSUNEAK GUZTIEN ARTEAN

Bajek sortutako hutsuneak guztien artean bete behar izaten dituztela azpimarratu dute plataformako kideek, eta horrek sistema osoa aztoratzen duela: «Legez jarria dago 1.500 paziente artatu ditzakegula, baina une honetan Tolosan 1.700 ari gara artatzen, gehi falta direnek utzitakoak. Guk egunean gehienez 27 paziente jasotzeko muga dugu jarria, baina batzuetan 40ra iritsi daiteke zifra hori. Eta hori ezinezkoa da kalitatezko zerbitzu bat emateko».

Horrek guztiak pazienteen osasuna arriskuan jartzen duela ohartarazi du Idarretak: «Gure agendek ezin dute amaiezinak izan. Kalitatezko lana egin nahi badugu, muga jarri behar da. Ez da lanik egin nahi ez dugulako. Hain justu, gure lana asko gustatzen zaigu. Baina ondo egin nahi dugu. Osakidetzaren lan ildo bat pazientearen segurtasuna da, eta denborarik gabe gauza asko gaitetik pasatzen dira. Arriskuan daude, alde batetik, gaixoaren se-



Tolosako anbulatorioko lehen arretako langileek protesta egin dute. R. CALVO

gurtasuna, eta baita medikuon osasun mentala ere».

BI IRTENBIDE

Epe laburrerako bi irtenbide proposatzen dituzte. Alde batetik, kontratazioak egin behar direla aldarrikatu dute: «Ordezko kontratazio txar ugari egin dituzte azken urteotan eta jendeak alde egin du, Europa aldera. Kontratu onak egin behar dira, altxorra da hori. Agian horrela kanpora joan direnak edo pribatuan lan egiten dutenak etorriko lirateke publikora. Kontratazio onak egiteko dirua behar da, baina murrizketak egiten ari dira».

Bestalde, itxaron zerrendak sortzearen ideia jarri dute mahai gainean: «Urgentzia duten gaizak bideratu beharko dira, eta gainerakoak itxaron zerrendara bidali. Hori egiten dute Europako beste herrialde batzuetan».

Zentzu horretan, gizarteari ere ardura eskatu diote: «Presaz bizi da gizartea. Urgentea ez bada ere, jendeak zerbitzua orain ematea nahi du. Gainera, azken urteotan gizartearen partetik ardura falta pixka bat ere egon da. Batzuk katarro txiki batekin etortzen dira, eta horrek asistentzia moteltzen du. Txandak ematen dituztenek ere ez dakite nola eman erantzuna horri, eta enfrentamenduak sortzen dira».

Osakidetzak abiatua zuen

egoera horri buelta emateko prozedura, baina geldirik dagoela salatu du Lehen Arreta Arnasberritzen plataformak: «Osakidetzak txostena bidali zuen, langileok ekarpenak egin genitzan. Egin genituen. Baina ez dugu berri gehiago. Lehen arretako batzorde berezi bat ere sortu zuten. Izendatu zituzten kideak, baina ez dira gehiago bildu. Ez badugu soinu pixka bat ateratzen, hor geratuko da». Egoera «larria» dela diote langileek, eta «erantzun azkarra behar» dela.

Azken hausnarketa bat ere plazaratu dute: «Honekin burura datorkiguna zera da, honen atzean egongo ote da zerbitzu publikoaren bukaera?».

ZUZENKETA

Abenduaren 4an 5. orrialdean argitaratutako *Hizkuntza politika udalean: Ahomotel eta Belarrigogor* gutunak akatsa zuen. Azken-aurreneko paragrafoak horrela behar zuen: Bereziki adierazgarria da pasa den astean Maite Izagirrek *Onda Vasca* irratia eskainitako elkarrizketan izandako jarrera. Kazetariak euskaraz galdetuta, alkateak gaztelaniaz erantzun zuen. ATARIK barkamena eskatzen die egileari eta irakurleei sortutako eragozpenengatik.



BELTZA GOGOAN

45 urte pasa dira Amezketa Joxe Etxeberria Sagastume *Beltza* eta Laudio Jon Pagazaurtundua Isusi *Pagaza* ETako kideak hil zirenetik, eta hori dela eta ekitaldia egin zuten asteburuan, Amezketa. Txalapartariak eta abeslariak izan ziren, eta Beltzaren gelakide ohi batek ere hartu zuen hitza. Agurra dantzatu ondoren, lore eskaintza egin zuten. ATARIA

Erosketa bonuak, merkataritza indartzeko

Erredakzioa Irura

Irurako Udalak, herriko dendari eta tabernariekin batera, erosketa bonuen kanpaina bat abiarazi du herriko merkataritza indartu asmoz. Txartelak Irurako 15 saltokitan erabili ahal izango dira abenduan eta urtarrilean. Zehazki, urtarrilaren 31n bukatuko da kanpaina.

100 LOTE

100 lote atera dituzte eta udaletxeko harrera bulegoan daude salgai, 09:00etatik 14:00etara. 50 euroko balioa dute loteek, baina herritarrek 40 euroan erosi ahal izango dituzte.

Erabilera errazteko 10 euroko 5 bonuko lotea erosi ahal izango dela argitu du udalak. Pertsona bakoitzak lote bakarra erosi ahal izango du.

Irurako Udalak herritarrak animatu nahi ditu erosketa bonuak erabiltzera herriko komertzioak bultzatu ahal izateko.

Errekalde taberna, Ametsa trinketea, Irura Selección, Ametz, Edurne Frutak, Enara, Irura okindegia, Xare okindegi eta kafetegia, Triku eta Tximak ile-apaindegiak, Beroguzki, Irura Botika, Loatzo jatetxea, Aizpurua taberna-jatetxea eta Irura kafetegian erabili daitezke erosketa txartelak.



zozketa

Atarikideentzat sarrera pareia dugu

DELTECO GBC - UCAM MURCIA

Abenduak 8, larunbata, 20:30ean
Donostiako Ilunben

Zozketan parte hartzeko ASTEAZKENA 13:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Aralarren inguruko dokumentala ikusgai, gaur, Berastegin

BERASTEGI // *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentala ikusteko aukera izango da gaur, 18:00etan, erabilera anitzeko gelan. Aralarko ondare natural eta kulturalaren leiho izateaz harago, hausnarketa eta gogoetarako bide ematen duen pelikula da. Adituen adierazpenek eta pasarteek, Nafarroa eta Gipuzkoaren mugan dagoen mendilerro honen balioa ezagutzera ematea rekin batera, kontserbaziorako deia egiten dute. Horrez gain, hirlaren 11n, asteartean, *Kontsumo-ari buruzko argibideak* hitzaldia eskainiko dute Kontsumobide elkartekoek, 17:00etan, hau ere erabilera anitzeko gelan.

Aurrez aurre eta Erasoka taldeen kontzertuak, Ibarra

IBARRA // Tolosako eta Ibarra-ko Gazte Asanbladek elkarlanean musika iluntzea antolatu dute abenduaren 15erako, autogestioaren bitartez musika aurrera ateratzeko. 19:00etan hasiko dira kontzertuak: Aurrez aurre eta Erasoka. 5 euro ordaindu beharko dira sarreran. Ogitartekoak jateko aukera ere izango da 3,50 euroan, eta beganoentzat aukera eskainiko dute.

Larunbatean erabakiko dira fronteniseko txapelaldunak

Ion Ander Izagirre XXVII. Frontenis Txapelketa iritsi da azken txanpara; larunbatean jokatu dira lau mailatako finalak, 15:30ean hasita, Berrobin.

Irati Saizar Artola Berrobi

Asteburuan jokatu dira finalaurrekoak, eta larunbata iritsi zain dago jendea irabazleak nortzuk diren jakiteko. Lehia estuak ikusteko aukera izan da asteburuan, eta larunbaterako ere gauza bera nahi dute antolatzaileek.

15:30etik aurrera jokatu dira partidak. Lehen finala mutilen binakako txapelketakoa izango da. Markel eta Ander Agirrek Xabi Goikoetxea eta Ibai Amundarainen aurka jokatu dute.

17:00etan txapelketa mistoko neurketa jokatu da. Xabi Goikoetxea eta Leire Jauregi, eta Mireia Barriola eta Xabi Zubiria izango dira lehian. Nesken binakakoaren txanda izango da ondoren. Mireia Barriolak bere bigarren finala jokatu du, Aiora Lasarterekin bikotea osatuz. Maialen Senperena eta Mirari Arteaga izango dituzte aurkari.

Laugarren eta azken finala mutilen buruz-buruko txapelketakoa izango da. Odei Arregi eta



Pasa den urteko finalerako artxiboko irudia; aurten larunbatean jokatu dituzte azken partidak. E. MAIZ

Xabi Goikoetxea izango dira txapela janzteko lehian. Aurten, parte hartzea «nabarmen jaitsi» dela adierazi du Arantzazu Rodas antolatzaileak. «Behin txapelketa bukatuta, balorazioa egingo dugu eta arrazoiak bilatzen saiatuko gara». Oinarrizko arauak ere

aldu egin dira aurtengo txapelketarako, eta horien eraginak beraztertuko dituzte.

FINALEN ONDORENA

Ez da dena lehia izango. Finalak jokatu ondoren, Usurbilera joango dira guztiak batera afaltzera;

Artzabal tabernan afalduko dute eta Orioko festetan jarraituko du ospakizunak. Finalerdietara iritsi direnei Ibin Kirol Klubak ordainduko die afaria. Finalerdietara iristea lortu ez duten parte hartzaileak ere gonbidatu nahi dituzte afaltzera.

GUTUNAK

Zer zen kartzela? Gauza onik ez, bistan denez

Pertsona arruntak gara, xumeak, jendearen ohiko kezka eta ilusioekin. Noizbait, gure Euskal Herri honetan, ingurura sakon behatzeak, barnean zauria eragiten zigula nabaritu genuen, kontzientziaren harrak biraka erraiak erretzen zizkigula. Pare pare heldu ezean, ez genukeen berehalakoan bakerik izango geure buruekin, seguru.

Hortik erabakiak: akaso ez zuzenenak, baina bai momentuan egokienak ziruditenak. Legea urratzen zuten nonbait, eta kartzela zekarten. Baina zer zen kartzela? Gauza onik ez, bistan denez.

Batzuk, ihes egin eta itxura batera hura ekiditea lortu genuen; inozoak gu! Kartzelaren itzala segika genuen metro eta autobusetako kameretan, lan kontratuetan, alokairuzko etxeetan, ezagutzen genuen pertsona berri

bakoitzean...etxetik urrun, txarrantxez hesitu genuen bizitza.

Besteok, bederatzi metro karratuko ziegetan erori ginen. Ño! Ez ziren ederrak, baina gustura hartu genituen lehen egunetan torturatzailen atzaparrak atzean utzita!

Ziega, horixe da gehienbat kartzela, lehen graduak aurkitzen diren kideen % 95ak 20 ordu pasatzen dituen itxitura. Udaran kanilako ura burutik behera eta neguan leihotako zirrikituetan periodiko paperak.

Bizi ala iraun esaten da. Presoak iraungo badu, bizi egin behar du, bizitza antolatu behar du inurri baten modura. Lauzpabost urrats atzera eta aurrera paseoan; luzaketak; liburuak eta Euskal Herriko prentsa irakurri; gutunak idatzi; arropa eskuz garbitu; material eskasarekin maitasunez gainezkako eskulanak ondu; 14 pulgadetako telebistara adi, baina tentuz, alferkerian erori gabe... behin eta berriz berdina, marmotaren eguna.

Baina gertatzen da maiz miaketak izaten direla, zigorrak, probokazioak, tentsioa, lekualdaketak, isolamendurako txangoak.. eta inurri horrek hartzairen indarra atera behar duela gose greba, txapeo, salaketak, idatziak eta plantoak irmo burutzeko. Zaila da, sakrifizioa eskatzen du, baina indarrak ateratzen dira. Nondik? Ba kartzelara eraman gintuen toki berdinetik: herriarenganako maitasunetik eta etxe-koengandik; beraiena bai karga eta kondena guk bolondres hartutako bi-deengatik!

Kolektiboa ahaztu gabe. Ziega txiki horietan bakarrak izanagatik, aldamenen beste kide bat dugu, pareko moduluan hiru, bi isolamenduan, dozenaka espetxetan beste hainbat, 300 eskas guztira. Eta denok zor gatzazkion kolektibo horretan antolatuta. Bat ukitzen badute taldea ukitzen dute. Taldean dago indarra, errespetua.

Eta, hala ere, bultzada handi-agoa behar da, haize freskoa, ini-

ziatiba berriak, mobilizazio ziklo jarrai eta eraginkorrak burutze-ko, testinguruz jabetu eta herri bezala erantzuteko, behingoz errepresaliatu guztiak etxera ekarriko baditugu.

Halaxe hasi ginen herrian, Maite etxeratzeko prest geunden eragile asko geundelako. Halaxe azken ostiraletako dinamika hauekin ere, gainbehera zeto-rrin inertziekin puskatzeko.

Gustura jarri dugu gure hondar alea ekimen honetan; gure artean harremandu eta kontu zaharrak astindu ditugu. Baina hutsu-nea nabaritu genuen segituan. Maiz aldamenen izan dugun Bautista falta zitzaigun, falta zai- gu, gure artean. Ibilbide luzea egin du herri honen alde. 50 urte dira Meliton Manzanasek atxilo- tu eta torturatu zuela eta azken ahatsera arte borrokan gertu izan dugu. Goxo joan zen eta goxo go- goratzen dugu guk ere. Bijoakio besarkadarik sentituena berari eta sendiari gure partetik. Aurre- rantzeko lanetan ere gogoan

izango dugu, herri honen alde dena eman duten kideak bezala. Maite dugu eta Maite ditugu!

Eñaut Garmendia, Jokin Aranalde, Aritz Sudupe, Joxe Manuel Artola, Joakin Urdanpilleta, Garikoitz Ibarluzea, Iñigo Zapirain eta Ion Mintegiaga
Ibarra

Esker onez, bideoa zabaltzen laguntzeagatik

Honen bidez, esker ona adierazi nahi diot Be- launtzako Udalarari, *Mende- baldeko Alpeetako zeharkaldia oinez 1988* bideoa zabaltzeko emandako laguntza- gatik, Fernando Osa Larrarte la- gunak (Donostia 1961-2015) eta nik, Mikel Garaikoetxeak (Tolosa 1953), zeharkaldi hau egin ge- nuela 30 urte bete direnean. Era berean, eskerrak eman nahi diz- kiet Osa Larrarte familiako kide- ei eta baita kultur etxeko ema- naldira bertaratu zirenei ere. Es- kerrik asko bihotzez!

Mikel Garaikoetxea Tolosa

Ostatu eta eskola aurreko gunea berritzea, inbertsio nagusiena

Gai ugariaren berri eman zen azken herri batzarrean, tartean Ñañarri etxearen proiektuaren egoera

Imanol Garcia Landa
Abaltzisketa

Aurreko astean herri batzarra egin zuten Abaltzisketan, eta bertan herrian lantzen ari diren hainbat gairen berri eman zuten. Jon Zubizarreta alkateak garrantzia eman die bilera horiei: «Gustatzen zaigu herri bilerak egitea, urtean bizpahiru aldiz egiten ditugu esku artean ditugun gaien berri emateko. Jendeak ondo erantzuten du: badago bloke garrantzitsu bat beti erantzuten duena eta herrian dauden jarduera guztiak interesatzen zaizkiona».

Lehenengo puntua aurten egin den inbertsioa handienaren berri ematea izan zen. Eskola eta ostatuaren aurreko terraza berri-tu dute. Batetik, estalpea egin dute, bai ostatuaren bezeroentzat eta baita eskolako atearen sarreraren parerako ere. Horrez gain, eskolako umeentzako gunea bat egokitu dute eta gainerakoa ostatuko terraza bezala erabiliko dute. «Aurrekontuak hasieratik zuen kopurua igo egin da. Behin lanak hasi direnean, eta herritarrek emandako iritzietan oinarrituta, aurreikusitako gabe zeuden eskailera batzuk egin baititugu. Gustura geratu gara emaitzarekin», esan du Zubizarretak. Denera 78.000 euroko kostua izan du, eta %45a Eusko Jaurlaritzako Leader programak lagunduta izan da.

Beste inbertsioetako bat herri bideak konpontzeko egin dute, legealdian zehar Gipuzkoako Foru Aldundiak eman dituen laguntzak baliatuz. Aurten beste bi egokitu dituzte: Nahera eta Sasiain aldeko bigarren zatia eta Arrupera doana. %70eko diru laguntza izan dute eta guztira aurrekontua 35.000 eurokoa izan da.

Traktore handien ibileren inguruan hitz egin zuten ere herri batzarrean. Orain bi legealdi inguru ordenantza bat osatu zen baserri bideen erabileraren inguruan, besteak beste, basoa ateratzerakoan sortu daitezkeen kalteei begira. Ordenantzaz gain, eztabaidarako beste puntu bat ere izan zen egun, askoz ere pisu handiagoa duten traktoreak ibiltzen direla bideetatik. «Guk planteatu genuena izan zen gaiari buruz ulertzen dutenak baserritarrak, kamioiarekin ibiltzen direnak, eta bideetan ibiltzen direnak direla, eta komenigarria litzatekeela udalean horien iritzia edo beste herrietan zer egiten den dakitenek jasotzea», zehaztu du alkateak.

ÑAÑARRI, EBAZPENEN ZAIN

Larraitzen dagoen Ñañarri erakina izan zen beste gaietako bat. Urteak dira udala horretan ari dela. «Aurten azkenean proiektua egokitu dugu behe solairua jatetxe-taberna bezala jartzeko eta goiko solairuan zortzi logelako hotel koskor bat jartzeko», esan du Zubizarretak. Dagoeneko hitzarmena dute zerbitzua kudeatuko duen taldearekin. Udalak aurkeztu du obra zibila diru laguntzetara, eta talde horrek altzariantzako eta barruko



Andresenea etxearen atzealdean dago egun, hondakinen bilketaren gunea. I.G.L.

azpiegiturentzako aurkeztu du. «Oraindik ez dira Leader diru laguntzen aurtengo ebazpena atera, baina hitzez esan zaigu ondo lagunduta dagoela bai udalaren eta bai kudeatzaileen diru laguntza eskaerak», esan du Zubizarretak. Horrez gain, Gipuzkoako Aldundiaren aldetik jarduera ekonomikoak eta lanpostuen sorrerentzako diru laguntzak jasotzeko aukera dituzte datorren urtera begira.

Etxebizitzaren gaiari ere heldu zioten herri batzarrean. «Eremu bateko jabeekin hitzezko akordio bat badugu, eta orain ea forma ematen diogun hitzarmenari eta paper guztiak zuzentzen ditugun», esan du Zubizarretak. Eremu horren jabeen aldetik eta udalaren aldetik jarrera ona dagoela esan du alkateak eta udaberrirako espero du gai izatea hitzarmena gauzatzeko.

Bestalde, *guifi.net* bitartez wifi bidezko konexio publikoa jarriko da Goibegin eta plazan. «Ia sare guztia osatuta dago eskualdean,

eta esan zaigunez modua izango da aurtengo Gabonetako martxan egoteko. Doako zerbitzu bat da», esan du alkateak.

Saneamenduaren gaia ere izan zuten mahai gainean. «Iaz lanketa bat egin genuen ur zikinaren egoera zein den aztertzeko», esan du Zubizarretak. Herriguneko etxe gehienak sare nagusi batera bideratuta daude, eta baserri batzuk eta landaguneko etxe batzuk badituzte fosa septikoak, baina beste herrietan bezala, hainbat egoera irregular batean daude. «Ustekabeen Gipuzkoako Aldunditik esan ziguten erabaki dela Larraizko ur zikinaren egoera zuzentzea. Orain proiektua erredaktatzen ari dira eta guk ekarpenak egin nahi izan ditugu, eta bideratu nahi izan ditugu Larraiztik herrigunera bitartean dauden etxe eta baserri guztiak», zehaztu du Zubizarretak.

Kale antolamendua ere hizpide izan zuten batzarrean. Historikoki herriak izan du enparantza ingurua, eliza eta udaletxearen

artekoa, baina herria hazi zenean, azpialdean kale bat ireki zen eta gainaldean beste bat. «Ez zitzaigun okurritu, kale horiei izenak jartzea eta behar bezala antolatzea», esan du alkateak. Etxe berriak egitean zenbaki berri bat eman izan zaio, eta gertatu da punta batean hamargarren zenbakia izatea eta bestean hamai-kagarrena. «Banatzaileek eta postariak nahiko galduta ibiltzen dira», esan du alkateak, «eta, beraz, kaleei izenak eman nahi dizkiogu eta atariak antolatu».

Beste puntuetako bat hondakinak biltzeko lekuaren aldaketa izan da. Lehen frontoiaren albo batean zeuden, eta orain Andresenea etxearen atzean daude kokatuta. «Momentuz leku hobea dela esan dute herritarrek, eta lehen baino txukunago ari garela ere ikusten dugu. Beraz, positiboa izan da aldaketa», esan du Zubizarretak.

Bestalde, gizarte zerbitzuen lege berria dela eta aldaketa garrantzitsuak datozela azaldu du Zubizarretak: «Konpetentzi batzuk Eusko Jaurlaritzarenak izango dira, beste batzuk Gipuzkoako Aldundiarenak eta beste batzuk udalarenak. Udal txiki eta ertainak momentuz ez gara gai zerbitzu horiek emateko». Horren aurrean ideietako bat hondakinen mankomunitateko estatutuak aldatu eta gizarte zerbitzuak mankomunitatean txertatzea da. Zubizarretak dioenez, «ez zaigu gustatzen mankomunitateak hartuko lukeen tamaina, eta gai horri buelta bat gehiago eman behar zaiola uste dugu».

Beste gaietako bat Enirio-Aralar Mankomunitatearen ingurukoa izan zen. «Aurten Eniriotik Doniturrietara doan bidearen lanak bukatzeaz daudela eta bide hori dela-eta mankomunitatean alde bozkatu genuela azaldu genuen. Herri ordezkarien aurka salaketa jarri dela ere esan genuen», esan du Zubizarretak.



iragarkilaburrak.eus



Artaldea saigai

Berrogei postu egongo dira igandean, azokan

Abenduaren 9tik 30era egitarau oparoa prestatu dute Olentzerotan Jakin-minezen

Imanol Garcia Landa Altzo

Azokarekin hasiko da Altzon Olentzerotan Jakin-minez kultur ekitaldi sorta. Hirugarren urtea izango da aurtengoa azokarentzat, eta urtero postu kopurua handitzen doa. Berrogei postu izango dira igandean herriko plazan jarriko direnak. «Postu asko dira», esan du Lurdes Murua Kultura zinegotziak, eta artisautza hartzen ari den lekua nabarmendu du: «Badago jendea ere deitu duena azokan parte hartzeko. Azpimarratzekoa da ere askotariko produktuak izango direla salgai: sagarrak, loreak, esnekiak, ardoa,

gazta, olioak, bertako barazkiak, eztiak, mondejuak, ahatekiak, gozoak... Horrez gain, hainbat artisautza mota erakutsi eta salduko dira».

Herritarrek ere parte hartuko dute azokan. Dozena bat postu izango dira, eta horietatik lau eskulanenak. Herriko eskolak ere bere txokoa izango du, eskulaneekin, eta biltzen duen dirua Saharara bideratuko dute proiektu baten bidez. Gazteek taberna jarriko dute, eta hainbat alegiarrek, berriz, arrakasta handia izaten duen talo postua izango dute. «Oso giro polita sortzen da eta jendeari gonbita egiten diogu azokara etortzeko», esan du Muruak.

Azokaren ondoren, ekitaldi sorta izango da, ia egunero, abenduaren 14tik 22ra. Berritasunen artean I. Bideomaratoi Festa izango da. «Aurretik argazki rallya antolatzen genuen eta aurtan alda-

tzea pentsatu dugu eta bideo lehiaketa jartzea martxan. Ea nola funtzionatzen duen», esan du Muruak. Giza balioen inguruko bideo labur lehiaketa izango da. Taldean egin beharko da bideoa, eta abenduaren 14a baino lehen aurkeztu beharko da Batzarremuñoko liburutegian. Bi maila izango ditu lehiaketak: 12 urtetik beherakoena eta 12 urtetik gorakoena. Abenduaren 22an egingo dira bideoen proiektzioa eta sari banaketa.

Hitzordu berezia izango da abenduaren 15ekoa. Herritarren artean egindako *Gure Haundia- ren Ibilerak* antzerki ibiltariaren bideoa proiektatuko dute eta, ondoren, kantu afaria egingo dute. Mahaiaren bueltan elkartzeko beste aukera talo jatea izango da, urtero arrakasta handia duena.

Bestalde, Altzoko Handia pertsonaia hartuz Koldo Izagirrek



Frontoian egin behar izan zuten iaz azoka, eguraldi txarrenezatik. JOSU ARTUTXA

idatzi eta Karmele Gorroñok eta Irene Iruretak ilustratu dituzten bi liburu aurkeztuko dituzte. Ekitaldira nahi duen oro joan daiteke, eta egileak bertan izango direnez, liburuak sinatzeko aukera ere izango dela azaldu du Muruak.

Bestalde, Kultura zinegotziak aurtengorako antolatu dituzten bi solasaldiak nabarmendu ditu: «Gaurkotasun handiko gaiak dira. Horietako bat basoei eta bere gaitzei buruz izango da. Bestea, gasolina, gasolioa eta auto elektrikoari buruzkoa. Gainera, auto elektriko bat ekarriko du solasal-

diko partaide batek». Horrez gain, *Alardearen seme-alabak* dokumentala ikusi ahal izango da eta gaia gertutik ezagutzen duten Jaizkibel konpainiako bi kiderekin hitz egiteko aukera ere egongo da.

Ezin ahaztu emanaldiak; Loatzoko Musika Eskolakoek emango dute bat, Andoni Egaña bertsolariak *Neretik* emanaldiaren estreinaldia egingo du, eta haurrei zuzendutako *Beldartxo Jatuna* ikuskizuna ere egongo da. Ekitaldi sorta bukatzeko, abenduaren 30ean, Et Incarnatus orkestraren emanaldia izango da, elizan.

EGITARAUA

Abenduak 9, igandea

10:00–14:00. III. Azoka Eguna, herriko plazan. Eguraldi txarra eginez gero, frontoira lekualdatuko dute.

Abenduak 14, ostirala

18:30. Loatzoko Musika Eskolako ikasleen emanaldia, Batzarremuño kulturegunean.

Abenduak 15, larunbata

19:00. *Gure Haundia- ren Ibilerak* herri antzerki ibiltariaren bideo-proiektzioa, Batzarremuño Kulturegunean.

21:00. Kantu afaria izango da Ostatuan. Prezioa 22 euro da, eta txartelak Ostatuan bertan daude salgai.

Azken eguna txartelak eskuratzeko abenduaren 12a izango da.

Abenduak 17, astelehena

19:00. Solasaldia: *Gasolioa, gasolina edo elektrikoak... Nolakoa izango da etorkizuneko ibilgailua eta zein erabilpen izango du?* Jokin Aldazabal, Euskadi Irratiko Ekosfera saioko arduradunaren eta Javier Oskoz, Don Boscoko automozio eta marketing arduradunaren eskutik. Batzarremuño.

Abenduak 18, asteartea

19:00. *Euskal Herriko basoak, gaitzak eta aukerak* hitzaldia, Iñaki Aizpuru Naturzaintzako biologoarekin

eta Amaia Urkola Gipuzkoako Foru Aldundiko baso-osasun teknikariarekin. Batzarremuño.

Abenduak 20, osteguna

14:30. Koldo Izagirrek idatzitako, eta Karmele Gorroñok eta Irene Irureta sortzaileek ilustratutako Altzoko Handiaren inguruko bi liburuen aurkezpena: *Altzoko Handia eta Kutixiren gezurrak* eta *Altzoko Handia eta Kutixiren pianoa*. Batzarremuño.

19:00. Irungo eta Hondarribiko alardeetan emakumeen parte-hartzea jorratzen duen *Alardearen seme-alabak* dokumentalaren proiektzioa izango da Batzarremuño. Ondoren, Ixabel Alkain irakaslearekin eta Eliza-

beth Olaskoa sexologoarekin gaia- ren inguruko solasaldia izango da. Biak Jaizkibel konpainiako kideak dira.

Abenduak 21, ostirala

19:00. *Neretik* emanaldiaren estreinaldia. Andoni Egaña bertso musikatuak abestuko ditu, Jon Ostolazak trikitiarekin lagunduta. Batzarremuño.

Abenduak 22, larunbata

17:00. *Beldartxo Jatuna* mikroantzerki ikuskizuna, Didau Antzerki Faktoriaren eskutik. Tximeleta baten istorioa kontatzen du, eta akto- reez gain, txotxongiloak, eta zuze-

neko musika izango da. Batzarremuño.

18:30. I. Bideomaratoi Festa. Lehiaketara aurkeztu diren bideo guztien proiektzioak eta sari banaketa ekitaldia.

20:00. Talo-jatea, Elordi elkartearen. Lehenengo haur eta gaztetxoak. 21:00etatik aurrera, berriz, gazte eta helduak. Prezioak: haurrek 6 euro, ikasle gazteek 12 euro eta helduek 18 euro.

Abenduak 30, igandea

16:30. Et Incarnatus orkestraren emanaldia emango du Altzo Muño-ko elizan, Azken Muga proiektuare- nen babesarekin.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Pilotazaleek izugarri gozatuko dute aurten Pebetekin

Behar Zanak punta-puntako nagusien mailako pilotariak elkartuko ditu VII. Antton Pebet Esku Pilota Txapelketan

Asier Imaz Amasa-Villabona


Villabonan ariko diren pilotari batzuk profesionaletara jauzia egitear daude; beste batzuk afizionatu mailan dena irabazia dute, eta azkenik, bada oraindik ezkutuan dagoen harribitxiren bat. Guzti horiek hartuko dute parte VII. Antton Pebet Txapelketan. «Afizionatu mailan, Euskal Herriko pilotari onenak ekarriko ditugu», dio Iñaki Lizasok. Nahiz eta bera izan lehenengoa Ioritz Egiguren bezalako pilotari baten hutsunea onartzen duena.

Behar Zanak antolatzen duen binakako esku pilota txapelketa gaur hasiko da, 19:00etan Bearzana pilotalekuan. «Bi aurre kanporaketa moduko jarri ditugu,

eta partida oso ikusgarriak geratu dira», onartzen du Lizaso Behar Zanak kideak.

Pilotazaleen gozamina gaur bertan hasiko da, beraz. Lehen partidako osagaiak Zubiria artista berrobitarra, Eneko Maiz munduko trinketeko azpitxapel-duna eta Behar Zanak pilotaria, Zezeagaren kolpea bortitza eta Aldaveren sendotasuna izango dira.

Bigarren partida ez da atzean geratzen. Salaberriarekin Mariezkurrena zen jokatzekoa, baina eskuetako minez, Artolarekin jokatzeko ari den Jon Mariezkurrenaren anaiak ez du Pebeten parte hartuko, hasiera batean. Behar Zanakoez bere ordeztu Balerdi aukeratu dute. Iñaki Liza-



Iaz bezala, esku pilota txapelketan joko garbiko partida sartu dute. A. IMAZ

sori lerdea erortzen zaio azken honetaz hitz egiten duenean: «Ezkutuan dagoen pilotaria da. Ez du jende askok ezagutzen, baina harribitxi bat da. Gipuzkoako Txapelketaren finala Peru Labaka eta Bikuñaren aurka jokatu zuen, Atxotegi aurrean zuela. Ez da ahaztu behar Bikuña atzelaria Asperekin debutatzera doala. Bada, Balerdik izugarriko erakustaldia eman zuen eta txapela irabazi zuten. Niretzat atzelari onenetakoa da».

Aurkariak Arrieta, azken urte-etako afizionatu mailan aurrelari onenetakoa, eta Esnaola txaramarra izango dira. Azken hau Behar Zanak pilotaria da eta bere maila erakusteko aukera izango du punta-puntako aurkari aurrean.

Txapelketa osoan bezala, gaur ere sarrera doakoa izango da. «Aurre kanporaketa izan arren,

txapela irabazteko moduko bikoteak daude asteazkeneko partidetan», amaitzen du Lizasok lehen eguneko errepasoarekin.

Bi irabazleek final-laurdenetarako jauzia emango dute, eta hor, beste sei bikoteak sartuko dira lehian. Horien artean ez dago faborito garbirik, bikote guztiek dute txapela irabazteko aukera. Aipatzekotan, agian, Albizturko bi pilotariak osatzen dutena izango da. Ez besteak baino gehiago edo gutxiago direlako, afizionatu mailan bikote esanguratsuenetakoa osatu izan dutelako Eneko Labakak eta Xabi Telletxeak.

FINALA, IKUSKIZUN HANDIA

Txapelketa nork irabaziko duen abenduaren 29an jakingo da. Azken partida horren aitzakian, ordea, jaialdi ikusgarria antolatu dute egun horretan Behar Zana-

EGUTEGI OSOA

Final-zortzirenak

Gaur, abenduak 5, 19:00etan

(1) - Zubiria-Aldave/Maiz-Zezeaga.
(2) - Salaberria-Balerdi/
Arrieta-Esnaola.

Final-laurdenak

Abenduak 14, ostirala, 19:00etan

- Urbietak-Bikuña/ (1)
- Eneko Labaka-Telletxea/ (2)

Abenduak 15, larunbata, 11:00etan

- Santxo-Lizeaga/Exposito-Alduntzin.
- Peru Labaka-Elizegi/Apezetxea-Murgiondo.

Finalerdiak

Abenduak 23, igandea, 11:00etan

Finala

Abenduak 29, larunbata, 17:30ean

koek. Hasteko, munduko lau pilotari onenak ariko dira lehian, joko garbian. Iazko ikuskizuna paregabea izan zen, gogoratzeko horietakoa, eta aurten erreban-txa jokatu da. Driolet eta De Paredesek Sistiague eta Carricaburu gaingitu nahiko dituzte, beraz. Guztiz partida gomendagarria.

Ondoren emakumeen arteko partida ikusteko aukera egongo da. Hemen ere puntako pilotariak elkartu dituzte, eta takoekin ariko dira gainera: Miren Larrarte bidaniarra, Arrillaga aginarra, Arrizabalaga gernikarra eta Naroa Mendizabal andoaindarra.

Jaialdiko azken partida izango da VII. Antton Pebeten omenezkoaren finala.

Behar Zanatik eskualdeko eta inguruko pilotazaleak gonbidatu dituzte harmailetara, damutuko ez direlakoan.

Beharrezko hiru puntu



Aulkitik
Irene Etxaburua
Tolosa CF, Euskal Liga

Abenduak 1, hilabetea-ri hasiera paregabea emateko garaipen itzela lortu genuen pasa den larunbatean. Aurreko partidaren sarreratu ez ziren baloi guztiak sartzeko aukera izan genuen.

Aurreko jardunaldian, Barakaldoren aurkako berdinketaren ondoren, beharrezkoak genituen hiru puntuen bila ateraginen zelaira. Nabarmena zen negua gerturatzen ari zaigula, 17:30ak eta jada iluntzen ari baitzuen.

Harmailak guraso zein gure jarraitzailez beteta hasi genuen partida. Bi ateetan hainbat aukera izan eta gero, iritsi zen gure lehen gola. Zuriñek Leioako Emakumeen bizkarrera egindako pase itzelaren ondoren, Bengolek ezin huts egin markagailuan aurrea hartzeko.

Motibazioak gain hartu eta minutu gutxira iritsi zen gure bigarrena. Baita Bengolen bigarrena ere. Baina 2-0 aurretik joanda ere, ezin lasaitasunez hartu partida, oraindik asko geratzen baitzen azken minutura iristeko.

Atsedenaldira heldu aurretik 2-1ekoa egitea lortu zuten aurkariak, eta partidari emozio pixka bat emanez sartu ginen aldageletara.

Bigarren zatia hasi bezain laster Junek baloia sareetara bidali zuen. Maria Herrerok ongi ikusitako pasea eman eta gero. Junek emozioz eta sinistu ezinik gola ospatzerako alde egin zuen bere postura.

Leioako Emakumeek ez zuten amore eman eta beraien bigarrena ere berehala iritsi zen, hala ere, Bengolek ez zuen nahikoa izan bigolekin eta etxera gustura joateko *hat-trick* egitea lortu zuen.

Azkenik, partidari amaiera

emateko Leire zelaira gogotsu eta gol gosez atera zen eta 5-2koa egin zuen. Denbora luzez golik sartu ez balu bezala ospatu zuen, harmailetara begiratu eta eskuak gora igoaz.

Beharrezkoak genituen hiru puntu horiek lortuta arro gaude egindako lanaz. Orain, aste berri hau ilusioz hasi dugu eta astea motza denez, ostegunean jokatu dugu Zarautzen aurkako partida. Zarautzeko Asti zelaian, 18:00etan.

Animatu zaitezte zuen laguntza behar dugu eta!

Azkenik, eskerrak eman beti guri animatzen dauden guraso zein lagunei, zuek bai jarraitzaile sutsuak!



ASTEAZKENA, 2018KO ABENDUAK 5
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082, tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118, ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132, kirolak@ataria.eus
Bezero arreata zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa amaituta balorazioa egiteko txanda heldu da; «eskerrak emateko garaia da parte hartu duzuen 8.100 Ahobiziei eta Belarriprestoi», esan du Galtzaundi elkarteak

«Euskaraldiak batu gaitu»

Erredakzioa Tolosa

Euskaraldia bukatuta balorazioa egin du Galtzaundi Euskara Taldeak. «Eskerrak emateko garaia da ariketan parte hartu duzuen 8.100 Ahobiziei eta Belarriprestoi. Kontzeptu horiek ezin dira egun batetik bestera ulertu eta baliteke askok zuen rola zein zen ez garbi jakitea. Rolak ezin dira bereizi hizkuntza jakintzaren arabera, norberak hartu nahi duen konpromisoaren arabera baizik, baina ideia hori barneratzea urteetako kontua izango da», esan du.

Euskaraldia hasi baino ez dela egin esan du Galtzaundik. «Hemendik 30 urterako eszenatoki-rako prestatzen hasi zarete. 30 urte barru, D ereduari eskerrak Euskal Herri osoan ulertu baita euskara eta orduan hasiko baitzarete Ahobiziok benetako partida jokatzeko. Azken hamaika egunei eskerrak badakizue nola jokatu behar duzuen eta egunero-egunero praktikan jartzeko ordua heldu da».

Ahobizi zein Belarriprest izan direnentzako hitzak ere izan ditu. «Ahobiziei kosta egingo zaizue oraindik, ohiturak aldatzea ez delako ahuntzaren gauerdiko eztula. Baina, lehen harria jarri duzue. Eta kontzeptuak barneratu ahala, geroz eta Ahobizi gehiago izango zarete». Belarri-



Asteasuko herritarrek ateratako argazkia. ATARIA

presten kasuan esan du asko daudela oraindik «beren armai-rutik atera gabe» eta aurrerantzean ere gehiago azaleratuko direla.

GALTZAUNDIKIDEAK

Tolosaldean 26 herritan sortu dira batzordeak, eta horiei eskerrak eman dizkie Galtzaundik, eta gogoratu herrietan sortu diren dinamikei jarraipena emateko garaia dela. «Sortu diren sugarrei haize eman eta sutondo epel gehiago eta beroagoak sortzeko garaia; horixe da Galtzaundi Tolosaldeko euskara elkartearen nahia. Zuek jakin ala ez, dagoneko bazarete Galtzaundikide, horixe baita herri aktibazioak behar duena: norbere herritik eta norbere herriarentzat euskalgintzako lanean diharduten boluntarioen multzoa». «Eta Galtzaundikide zarete baita txapa jantzi duzuen guztiok ere, zuen hizkuntza ohiturei astindua ematea

erabaki duzuelako. Eta baita txapa jantzi gabe, inguruari aldatzen utzi diozuen eta oztoporik jarri ez duzuenok ere», gaineratu du.

Tolosaldean euskaraz bizitzea posible dela gogoratu du, eta hori Euskal Herri osora zabaltzeko beharra dagoela esan du. «Denborarekin, Tolosaldea bilakatu behar da Euskal Herria eta horretan, euskararen bihotzean zaudeten tolosaldetarrok baduzue zer eta non ereina eta eragina».

Hamaika egunek zerbait erakutsi badute, paradigma aldaketa dela esan du: «Euskaraz egiten dizunari euskaraz egitetik, euskara ulertzen dutenei euskaraz egitera pasatzea. Ikusi da besteak gazteleraz erantzuteak ez duela esan nahi zuk gazteleraz egitea nahi duenik».

«Zorionak eta bihotz-bihotzez eskerrik beroenak hau guztia posible egin duzuen guztioi. Euskaraldiak batu egin gaitu», esan du Tolosaldeko euskara elkarteak.

ASTEAZKENA 05

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Nagusilan egitasmoa, 12:00etan, Zerkausan. Boluntarioak lortzeko kanpaina da.

Berastegi. Aralar, mundua leku den lurra dokumentala, 18:00etan, udal-etxean. Ondoren, solasaldia egingo dute.

Tolosa. Antolakuntza komunalaz ari-zeko asanblada irekia, 19:00etan, Abastosen. Proiektua osotasunean azalduko dute.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika Martinez, Euskal Herria kalea, 3. Telefono zenbakia: 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. Rosalia Morant Barber, Zabalarreta, 1. Telefono zenbakia: 943 67 38 49.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

16:30. Ur etalur.

17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

22:00. Onein.

22:30. Amaia DJ.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Antzeko giroa izango dugu. Berriz ere hego/hego-mendebaldeko haizeak joko du, bizi gainera, eta horrekin tenperaturak altuak izaten jarraituko

dugu urte sasoi honetarako, non maximoek berriz ere 19-20 graduak joko dituzten eguneko erdiko orduetan. Zeruian goizean goi-hodei batzuk agertuko zaizkigu, baina giro eguzkit-sua nagusituko da eta arratsaldean mendebaldetik eta hegoaldeko hodei trinkoagoak sartuko zaizkigu. Hodei horiek, hala ere, ez dute inolako ondorioz ekarriko eta ateri eutsiko dio.



Bihar. Eguraldiak zertxobait okerrera egingo du. Lanerako gogo askorik ez dakarren fronte batek hodeitza handia utziko digu egun osoz eta zer edo zer bustiko du. Hala ere, 4 tanta izango dira eta euria ez da garrantzia handikoa izango. Haizeak mendebalduki hartuko du eta tenperaturak behera etorriko dira, eguneko erdiko orduetan 15-16 gradutan joaz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

EUSKARAK
365
EGUN

Zorionak herriko Ahobizi eta Belarriprest guztiei!



IKAZTEGIETAKO
UDALA

